

Piarres Larzabal (1915-1988) eta antzerki identitarioa

(Piarres Larzabal (1915-1988) and identity playwriting)

Etxeberría Muxika, Ixabel
Piarres Larzabal kolegioa. F-64500 Ziburu

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 199-215]

Jaso: 2010.01.19
Onartu: 2010.10.05

Lan honetan Piarres Larzabalen antzerkigintzaren ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Horrez gain, obra beraren oinarriak zein diren begiratuko dugu, zer helbururekin idatziak ziren. Urrats handia eman zuen antzerkigintzak Piarres Larzabali esker, komedia izatetik, irri egiteko ikusgarri soila izatetik, antzerkia gogoeta eremu, aldarrikapen eremu izatera eraman zuen. P. Larzabalek, komediatik, antzerki identitariora egindako jauzia bultzatuz, kalitatezko antzerkia finkatu du Ipar Euskal herrian.

Giltza-Hitzak: Piarres Larzabal. Komedia. Kalitatea. Antzerkigintza. Literatura identitarioa.

En el presente trabajo se analizan las características principales de la obra teatral de Piarres Larzabal. Además, observamos los fundamentos de dicha obra, los objetivos con los que fue escrita. El teatro vasco dio un gran paso con Piarres Larzabal; de ser una comedia, un simple espectáculo cómico, hizo del teatro un espacio de reflexión, un espacio de reivindicación. P. Larzabal, al propiciar el salto de la comedia al teatro identitario, consolidó el espacio del teatro de calidad en el País Vasco continental.

Palabras Clave: Piarres Larzabal. Comedia. Calidad. Producción teatral. Literatura identitaria.

Dans ce travail on analyse les caractéristiques principales de l'œuvre théâtrale de Piarres Larzabal. De plus, nous observons les fondements de cette œuvre, le but dans lequel elle fut écrite. Le théâtre basque a fait un grand pas en avant avec Piarres Larzabal; d'une comédie, d'un simple spectacle comique, il fit du théâtre un espace de réflexion, un espace de revendication. P. Larzabal, en favorisant le saut de la comédie au théâtre identitaire, a consolidé l'espace du théâtre de qualité dans le Pays Basque continental.

Mots-Clés : Piarres Larzabal. Comédie. Qualité. Production théâtrale. Littérature identitaire.

Piarres Larzabalen literatura lana nahiko ezaguna da. Munduko bigarren gerla ondoko garaiko idazleetan idazle handienetan koka dezakegu Larzabal.

Obra nagusia antzerkigintzari lotua da genero horretako lan asko idatzi baitzituen. Arrakastatsua izan zen ekina, sekulako ikusgarri antolatu baitziren Euskal Herrian zehar, eta oraindik Larzabalen obrak ikusteko aukera dago. Arrakasta honek loturak baditu garai bateko gazteek zuten elkartzeko ohitura-rekin. Horretaz jardungo dugu.

Bestalde, gizartearekin bizi zen Larzabal, eta gizartean ematen ziren aldaketak nabarmentzen ziren antzerkietan, baina nabarmentze horietatik ohar gaitetzke aldaketek izigarritzko grina, kezka sortzen zizkiola Larzabali, horrela aldarrikapena heldu zen, hemen azalduko duguna, euskal identitateari lotua dena, antzerkia identitario gisa definitzera eramaten gaituena.

1. OBRA HANDIKO AUTOREA

Genero desberdinak landu ditu Larzabalek antzerkian utzi baldin baditu ere aztarna gehien. Lekukotasun asko, ipuinak, kanpoko ikusgarriak, irratiko saioak, olerkiak, horiek oro landu zituen.

1.1. Idazle xume eta umila

Larzabalek ez zuen idazle handizat bere burua, horretaz gutxi idatzi du eta bereziki zer nolako lanak idatzi zituen kontatzeko. Lan horiez oroitzapen zerbait geldi dadin asmotan. Idazle lana oso normaltzat jotzen zuen, naturalki egiten zuena eta oso gazterik hasi zuena, munduko bigarren gerla baino lehen alegia. Nerabea zelarik idatzi zituen lehen bertsoak eta horren berri izan zuen Piarres Lafittek berak, ohartu zen dohain handiko gaztea zuela aitzinan.

Goiz hasi zen idazten eta giz argitaratua izan zen Laffitten eskutik, saristatua ere Euskalzaleen biltzarrean. Idazle gisa, bere lehen bi antzerkiak *Piarres zozo* eta *Merkatutik*¹, azken hau Euskalzaleen Biltzarrak saristatu zuena 1937an. Hots, goiz ezagutua. Ez zuen horrek ondorio nabarmenik izan bere ibilbidean. Hala ere ezagutza handia izan zuen Euskalzaindian sartu zelarik 1963an.

Larzabal idazle gisa zeukan orijinaltasuna izan zen herritarrekin sortu zituen loturak. Ezin zuen bere lana pentsatu bulego baten bakartasunean. Herritarrekin era hertsian bizi zen. Bizi guztia eraman zuen horrela, ezagutu zuten lekuko guztiek harekin bizitako gertakari bizietan horrela ekartzen dituzte. Ibilbide naturala, euskalgintzan ez zuen formakuntza berezirik jaso, egoera bereziak ezagutu baino. Aitatxi hurbila zuen, harekin bizipen asko izan zituen eta aitatxik karlistak ezagutzen zituen, etxean horretaz hitz egiten

1. www.armiarma.com/

zuten, oroitzapenak zituen. Amatzik erran zion apezka izanen zela eta bide hau hartu zuen. Jendearekin izandako harremanez jasotzen zuen gogoeta lerro berean. Eskolako maisuak euskaraz egitea debekatzen zion eta eskertu zuen, euskalduna burugogorra dela omen eta debekuaren ondorioa bizi gutxian euskararen alde lan egiten aritu zen. Zalantzarik gabe, maisu horrek eragina izan zuen Larzabalen bizia, honek Euskalzain sartu zelarik ere haren aipamena egin baitzuen sartzeko mintzaldian.

Euskaldunen irudia zalantzan ematen zen garai horretan, gerla ondoko garaian, hau ezin zuen jasan Larzabalek eta plazetan erakusten antzerkiek non euskaldunak irrigarri agertzen ziren salatu zituen. Beste ikusgarriak aldarrikatu zituen euskaldunen nortasuna goraiapatuko zituenak. Horretaz prentsan idatzi zuen. Piarres Lafitte ere sentzu berean zihoan orduan, berrogeigarren hamarkadaren bigarren zatian.

Hau izan zen Larzabalen obra zabalean ikusgarriena eta ezagunena izan zen zatia, antzerkigintza alegia.

1.2. Piarres Larzabalen antzerkigintza

Piarres Larzabalen antzerki obrak ehun antzerki baino gehiago biltzen du. Horren lekukotasuna eman zuen Larzabalek berak Bordelen han bilduak ziren ikasleen aitzinean euskal antzerkiaz egin zuen bilduman. Ehun antzerki baino gehiago eta batzuk galdu zituenak. Horrek erran nahi du obra osoa ez dela gorde. Seguraski Larzabalen kezka ez baitzen, hasiera batean behintzat, idazten zituen lanak gordetzea.

Piarres Larzabalen antzerkigintza aztertzen hasteko, bi adar nagusi izan behar ditugu gogoan: lehenik antzerkiak, testu bezala, askotan eskatuak izan zitzaizkonak, taldeen arabera idatziak ziren testuak daudela, eta bigarrenik antzerki horien inguruan bizi zen jende eta mogimendua. Bi zutabe dira, oso lotuak, elkarren arteko atxikimendu oso estuaren irudia eman diguna. Bi adar horien hurbilpen bat egingen dugu, hemen aurkezten dugun lanean.

Antzerkien eremuan sartu baino lehen ohar bat egiteke dago. Lan honetan, Piarres Larzabalen antzeslana aipatuko badugu, ezin dugu obra honen arrakasta ulertu lotua zitzaion mogimendua gogoan izan gabe.

Izan ere, 1950tik landa Ipar Euskal Herrian zehar, Larzabalen antzerkiak izigarritzko hedapena izan zuen, Lapurdin eta Behe-Nafarroan gertatu zela erran behar baldin bada ere. Eskualde horietako herri gehienetan antzerki talde bat zegoen, talde horien artean loturak zeuden eta horien arteko lehiaketak ere.

Baina, egoera horren ulertzeko gogoan hartu behar da bi eskualde horietan antzerkiarekiko atxikimendua aintzineko denboretatik heldu zela. Ipar Euskal Herrian alde batetik antzerkia gustuko denbora pasa zen, eta bestaldetik gizartea bera, gizarte antolatua zen, askotan gazteak Euskaldun Gazteria mogimenduan partaide ziren, mogimendu honek herri gehienetan

talde bat zeukan apez baten ardurapean. Mogimendu honek Eskualdun Gazteria zuen izena, elizari lotu gazte antolaketa zen.

Euskaldun Gazteriari buruz egin ditugun ikerketetan, agertzen zaigu Euskaldun Gazteria elkarte, 1933an Houbaut apezpikuaren eskutik sortu zela, Ibarrart apezaren ardurapean. Honen inguruan aurkitu zen Etienne Pochelu besteak beste, Eskualdun Gazteriaren lehen presidentea.

Gerla aintzin, laborari munduko gazte batzuek eta herrietako apezak ere elkarte horretan lanean ari ziren. 1937ko ekainetik landa 11 herrialdetan apezak izendatuko dira gazte mogimendu horren inguruan lanean aritzeko: Baiona katedrala, Uztaritze, Baiona San Andres, Bidaxune, Donibane Lohitzune, Ezpeleta, Hazparne, Larzabale, Garazi, Baigorri, Donapauale, Maule. Elizak gizartea antolatzeko zituen gogoak argi ziren, laikoen formatzea zuen helburutzat, horren beharraz ohartua baitzen. Bigarren gerla aintzin euskal gizartea euskalduna eta fededuna zen, girixtinuen antolaketan murgildua. Baina gerla hasi zen eta lanean hasia zen. Haatik, gazteri frangok gerlara joan behar izan zuen. Mobilizazioak gazte guziak hunkitzen zituen. Askok preso bukatu zuten eta Ipar Euskal Herriko indarrak desagertu ziren.

Gerla bukatu eta Euskaldun Gazteria berpiztu zen. Elizaren tokiaren berrindartzeko lanean hasi zen. Hamarkada horietan elizaren eragina oso zabala zen, Ipar Euskal Herriko gizarte osoa hunkitzen zuen eta erran daiteke Elizak gizartea antolatzen zuela, bederen gazteen eremuan. Antolaketa honek benetazko eragina izanen du hirurogeigarren hamarkadaren bukaera arte Ipar Euskal Herrian. Eta antolaketa horretan antzerkiak bere lekua bazuen, apezak antzerkiaz arduratzen ziren ere.

Herria astekariaren alean *Theatrolarier* titulupean plazaratu artikulu batean azaltzen zaigu:

[...] Aurthen berrogei herri edo herrichetarik segurik ukhan ditugu theatrotan jokatzeko Eskuarazko ikusgarrien galdeak [...]².

Hemen aipatu nahi dugun antzerki mogimenduaren abiatzea baizik ez zen. Berrogei talde zeunden prest antzerkian aritzeko.

Bestalde giro politikoaren itzuli xumea egitean, ohartzeko gara mende honetan zehar eta mende honen hasieratik, eskuineko politikak zuen eraginaz, euskaltasunak ez zuen eremu horretan tokirik. Eragina sumatzen zen heldu Hegoaldetik, harremanak baitziren Hegoaldeko abertzaleekin, Aitzol berak bere idatzietan Donibane Lohitzunera egin bidaien aipamena egiten du. Piarres Laffittek loturak zituen abertzaletasunarekin.

2. *Herria* astekaria 1948ko maiatzaren 6an plazaratu artikuluan, *Theatrolarier* izenburupean.

Xehetasunetan sartu gabe, Jean Ybarnegaray, 24 urtez Ipar Euskal Herrian diputatu izan zena, Action Française eta Croix de Fer eskuin muturreko taldeko partaidea izan zela kontutan hartu behar da. Diputatu gisa izendatua izan zen lehen aldikoz 1914an eta berantago Vichyko gobernuan parte hartu zuen. Ybarnegarayen hautesbarrutiko herri nagusiak Kanbo, Donapaupe, Hazparne, Baigorri, Garazi, Atrarratze eta Maule ziren. Jarraian Intsauspe familia sartu zen politikan. Garai berean, De Coral Urruñarra diputatu izan zen ere, bera ere frantses eskuinari lotua.

Herri oso tradizionala zen Ipar Euskal Herria, laborantzari lotua, zombait eremutan langileriaren presentzia nabarmena bazen ere. Presentzia horrek Larzabal eraman zuen ere problematika sozialen aipatzera, langileen eskakizunak herritarrekin zeraman lanetan ezagutzeko aukera izan baitzuen. Ez da ahantzi behar Larzabal familia xume batean hazi zela, herritar xumeen alde jartzera askotan ekarri zuen jatorria.

1.3. Gizarte mugimenduen berpiztea

Gerla bukatu eta, zernahi mugimendu sortu zen. Hazparne herrian Piarres Larzabal aritu zen lanean sorkuntza horietan, zernahi lanetan partaide zen JACen edo Eskualdun Gazteriaren berpizkunde horretan, baita ere JOC (Jeunesse Ouvrière Chrétienne) taldearen sorkuntzan³. Izan ere, Hazparne langile eremu handia baitzen, lantegietan gazte anitz biltzen zen. Maule bezala Hazparne Ipar Euskal Herriko industria gune nagusia zen, alegia langileen antolaketarentzat toki egokia. Horrela gertatu zen eta garai horretako lekukoek adierazten duten bezala Euskal Herriko CFTCren lehen urratsak JOCren bidetik eman ziren.

Piarres Larzabal 1939an apeztu zen, eta Hazparnen izendatu zuten. Urte batzuk gerlan eta preso egon ondoren, Hazparnera itzuli zen. Frantses erresistentzian sartu zen. Gerla bukatu zelarik giro politikoa aski nahasia zegoenez eta komunisten indarraz beldurrez erresistentzian ibili arduradunak ber-bildu zituzten eta Piarres Larzabal "Membre Cantonal du Comité de Résistance" izendatu zuten Komandante graduarekin. Horrela Piarres Larzabal, hiru urtez Hazparne inguruko gazteei "gerla zientziak" erakutsi zizkien.

Alderdi askotako gizona zen Larzabal, gerlatik landa euskal kulturaren eremugildu zen, euskal kultura hedatzeko lanetan hasi zen. Kulturaren heda tokitzat antzerkia hautatu zuen, ala herriari so eginez ikusi ote zuen herria hunkitzeko antzerkigintza zela bitartekari aproposa, zaila da zehaztea. Dena den, antzerkian gaztetatik bizi izan zuela zalantzarik ez dago eta bide horretatik jarraipena izan zen sorkuntzara heltzea. Horrela, bai literaturan bai herriarengan, toki berezia izan zuen Larzabalen obrak. Hogeita hamar urtez

3. MAYTE P. 1992. L'Euskaldun Gazteria (JA, JACF, MRJC) des années 1930 à la fin des années 1970. Mémoire de Maîtrise d'histoire. Bordeaux III.

izan zuen presentzia arrakasta handi baten froga bat bezala uler dezakegu eta horren segida dugu oraindik, antzerki horiek plazaratzen baitira oihartzun handiz.

2. ANTZERKIA ZERTARAKO ETA NOLA?

Piarres Larzabalen bizitza ekintzetan oinarritzen zen, jendearekin bizi zen, laborantzan, lantegietan, edo 1951tik landa Sokoara bizitzera joan zelarik, arrantzale munduan murgildua bizi zen.

Mundu horiek erakutsi zituen.

2.1. Hizkuntzaren garrantzia

Ezaguna zuen haren inguruko munduaren lekukotasuna eman zuen antzerkiaren bitartez. Bere inguruan ikusi, entzun, sumatzen zituen kezkek azaldu zituen. Zer mintzairatan? Hastapenetik bere buruari egin zion galdera izan zen. Prentsan plazaratu zuen⁴. *Herria* astekarian euskal antzerkiari buruzko iritzia agertu zen. Bestalde, Larzabalen ikuspuntua bazen eta zen soilik berea, gazte mugimenduan ere horretaz aritzen ziren. Hemen dugu horren lekukotasun bat, *Gazte* astekarian aurkitua. Piarres Larzabalek ez zuen artikulu hori idatzi, bestalde argitaratu zelarik Larzabal aspalditik ari zen antzerki lanetan. Baina, interesgarria da horren azaltzea, antzerki horiek zer girotan idazten ziren adierazten baitigu:

[...] ZOIN ESKUARA? Ezarrazue hastetik zuen pieza zuen herriko mintzairan, etchean bezala sanoki mintza, kostatarrak kostatarrez, garzatarrek chuka; berdin beharrez zombait hitz zuen mintzairarat itzuliz [...]⁵.

Gerlatik landa, eroria zen gazte mugimendua berriz ezarri zen martxan. Eskualdun Gazteriak ezagupen ofiziala hartu zuen, Eskualdun Gazteriaren estatutuak 1954an ofizialki xutik ezarri ziren. Ipar Euskal Herrian gazteek lan egin zuten herrietan Euskaldun Gazteriaren dinamika horretan. Talde horiek gune ezin egokiagoak izan ziren Larzabalen antzerkien hedatzeko.

Larzabalek erritmo horri jarraituz lan egin zuen, gazte horiek eskatzen zizkioten antzerki lanak eskainiz. Antzerkizaletasunak bizirik irauten zuen, euskararekiko atxikimendua hor zen. Antzerkigintzak herritarrekin izugarriko lotura eman zion Larzabali. Bere elizan baino jende gehiago huntzen zituen antzerkiaren bitartez, antzerki horiek herri ainitzetan ematen baitziren. Antzerkietara hurbiltzen ziren herritarrei mundua ulertzeko bide egokia eskaintzen saiatzen zen. Herritarrek ez ziren beste ikusgarri askotara ateratzen, antzerkia urteko gertakaria zen herri txikietan. Horretaz

4. *Herria* 1949ko ekainaren 9an. « Un nouveau théâtre est né en Pays basque » artikulua plazaratu zuen.

5. *Gazte*. 1956ko azila. 0.8

baliatzen zen gogoeta pasarazteko. Bertako hizkuntza zen, bertako antzezleak ziren, partaidetza handiko unea zen. Publikoak harrera ona egiten ziren antzerkiei.

Herritarrekin antzinara joan zen, publikoen oharrak ere entzuten baitzituen, gizartearen aldaketak eta euskal gizarteak nortasuna galtzen zuen heinean bere nortasunaz arto izaten erakutsi nahi zion. Horrela “historikoki zuzen” ez diren antzerki historikoak toki handia hartzen joan ziren Piarres Larzabalen obran, sentimendu kolektibo baten oihartzuna. Berrikuntzari buruz joaten zen, betiere sustraiei lotua egonik.

Askotan familietan antzerkiaren esperientzia zegoen, erraten zitzaion komediarena, osaba bat, edo gurasoak gaztetan herriko antzerkian ibiliak zirelako. Familia euskaldunetan, “supazter xokoan” ipuinak, istorioak kontatzen baziren, antzerkira joateko ohitura ere zegoen. Antzerkiak euskara eremu pribatutik publikora pasatzeko aukera ematen zuen, mundu afektiboa plazara ekarria zen. Apaizaren eskutik plazaratzen zen, ondorioz baimendua zen.

Publikoak ziren zereginentzat, paper munduarentzat ez zen euskara beharrezkoa. Antzerkian aldiz, funtzio guztiak hartzen zituen euskarak. Horregatik ere antzerkiak oihartzun handia zuen herritarren artean. Gizarteko loturaren aldeko urratsa zen antzerkia, haurtzaroko mundua berreskuratzeke, oroitzeke, herrietan bizi zen hizkuntza ozenki mintzatua entzuteke.

Urteko une inportantea zen, hilabeteetako prestakuntzaren emaitza, goaitatua zena. Komunikazio unea plazeraren eskaintzeko, jendea etxetik ateratzeko, munduari irekiak izatea proposatzeko eta herriaz harro izateko. Herriaren barneko elkartasun unea zen, jendeen arteko harremanak biziarteko tresna zen antzerkia.

Bestalde, antzerkilarientzat, mugen gainditzeko aukera zen, pertsonalitate bakoitzari beste batzuen tokian emateko parada eskaintzen zitzaion, eta horrekin sorkuntza egitea, ezagutua izateko unea, publikoaren aitzinean afektibitate unea aparta. Eguneroko bizitzatik at zerbait berri, usaiaz kanpoko zenaren bizitzeko proposamena zen. Ihesi joateko bide bat. Horrek guztiak laguntzen zuen antzerki munduaren idealizatzeko joera, hain xuxen kolektiboki eta pertsonalki afektibitate, mundu emozionala, oso sakonki hunkitzen baitzuen.

Hau zen Larzabalek irauli zuen lurra, onkaia. Berak, segur aski ezaugarri berekin biziko zuen antzerkia. Hobetzeko bere luma erabili zuen, euskal gizartearen kultur eremuak jorratzea ozenki aipatuz.

Ez zituen hastapen horretan euskal kulturaren alderdi hoberenak hautatu, Etxahun eta Bordaxuri ez baitziren euskaldunaren irudi perfektuak, alderantziz. Ez zuketan oroitzen ona utzi, hartu zituen eta norabide berria eskaini, lotsa kentzeko asmoz, bide berriak erakutsiz eta ikasgaiak harturik norabide berriak finkatzen ahal zirela errateko. Hau baitzen hastapeneko helburua, tribuna berriaren baliatzea behatzaileei hitz egiteko.



LAIRE

plol . 10 fr. à l'igua,

1919

Abendo-aren
Lehen-eko

JEUDI

1^{er}

Décembre

Quand je pense à mon instituteur !

Il est pénible pour un homme qui a cru en ses maîtres d'école et les a aimés de devoir, à l'âge mûr, se retourner contre eux, pour leur dire, non sans amertume : « Messieurs, vous m'avez trompé !... Profitant de ma faiblesse d'enfant, vous avez faussé mon esprit ! »

Ce sont là pourtant des paroles que beaucoup d'entre nous, vous adressent aujourd'hui à vous, qui fûtes nos maîtres d'école.

Le ba-ba de toute éducation, c'est de ne pas négliger, encore moins de mépriser les apports sains d'un milieu, mais de les utiliser et de les épanouir.

Or, combien êtes-vous d'instituteurs à avoir su faire chanter dans nos cours ces belles et traditionnelles vertus de nos campagnes basques ?... La fierté paysanne, la beauté du travail de la terre, l'amour de l'être familial, l'attachement à notre « etchea » ?

Au lieu de cela, vous nous avez inculqué le mépris de la condition paysanne : « Paysan, va !... Tu en sauras toujours assez pour faire un paysan ! » Les avons-nous assez entendues, ces réflexions !

Et, vous avez oïdé nos campagnes de ceux qui auraient dû en constituer l'élite, et dont vous avez fait, la plupart du temps, des fonctionnaires d'Etat.

ALDUDA

HILTZE. — Urricariet jaunak hilitik, pena handia ukatu dugu. Jainkoaren nahia, haren seme opehera ordutan berean klinikatik itzaki, beraz ez bitero antso. Erran gabe doa ehorketara ederrak egun dazkogula zendu gaichoari. Familiak eta berazki orai hobeki doan Urricariet Mugerretako jaun erreitorak onharti hitzate gure dolumin bitienak.

Au lieu de vous servir du tremplin de notre belle et antique langue euskarienne, pour aborder l'étude du français cette langue, vous l'avez méprisée, interdite, parlant en cela, hélas, l'erreur d'un certain nombre d'éducateurs privés.

Vous avez ignoré ou combattu notre religion ou ne lui avez accordé, que l'importance d'un phénomène folklorique... Détournant nos regards des perspectives éternelles, vous nous avez prêché une morale au rabais, basée sur de simples vœux humaines.

Sur le terrain mouvant et peu délicat de la politique, vous avez su faire preuve d'un indéfectible esprit de renouveau. Mais, ce renouveau lui-même, vous l'avez forgé par des appels à la facilité et au laisser-aller, oubliant que seule est durable une révolution bâtie sur l'esprit de sacrifice...

Ne soyez donc pas étonnés que vos adeptes en politique se montrent moins fervents ou vous abandonnent... Vous-mêmes, où sont vos enthousiasmes d'antan ? Si quelques-uns d'entre vous, rares, prêchent encore la foi communiste parmi nous, pour la plupart, vous vous étiolez dans un socialisme embourgeoisé, voire dans un radicalisme repu !

Au moment où de divers côtés des appels sont lancés invitant les Français à une entente sur le terrain scolaire, saurez-vous faire sur ces questions le redressement nécessaire qui vous rapprochera de nous ?

Si oui, l'on peut prédire à votre belle profession, un avenir de travail pacifique et fructueux.

Sinon, la lutte continuera au grand dam de tout le monde.

Piarr LARZABAL.

Artikulu honetan Larzabalek euskarari zergatik atxikia zen azaltzen zuen.

Hogeita hamar urtez, gaiez gai pasatuz, euskal kultura erreferentzia hartuz, edo itzalean bizi zen kontrabandoa publikoki azalduz, etxeetan zeuden arazoak administrazioa zela eta, euskaldunen historia birmoldatuz, ez jakina, ez aipatua eta batzuetan gordea zena plazaratuz.

Bigarren mailako hizkuntza ozenki mintzatuz, antzerkia ere hobetzera eraman zuen. Dinamika handia sortu zen herrietan jokalaria batzuek kalitate handiak erakutsi zituzten eta urrunago joateko prest zeuden. Talde batzuk herriz herri ibiltzen ziren eraiki zituzten obren erakusteko.

2.2. Kalitatezko antzerkia

Goiago erran dugun bezala, gerla bukaeran, eta ondorengo urteetan, nahiko luzaz, euskalduna irrigarri erakusten zituzten antzerkiak salatuz zituen Larzabalek. Euskal kulturak babesa behar zuela argi zuen. Horrela, Hazparnen izan ziren galarrotsak, frantses prentsan salatuak izan zirenak, defenditzera atera zen eta artikulua plazaratu zuen⁶. Alta, berak ez du sekulan ez galarrotsarik, ez toberarik idatzi. Euskal kulturari, kritika soziala gisa ikusten den karrikako antzerki mota hori egokia iruditzen zitzaion eta erraten zuen, orokorki sostengu gutxi zeukan praktika.

Antzerkiak idazten zituen heinean, gaiak garaiei egokitzen saiatzen zen. Arrakasta handia lortu zuen *Etxahun* antzerkiarekin, funtsean irri egiteko antzerki horietatik urruntzen baitzen eta beste ekarpena egiten baitzuen. Hortik landa bere fama hedatu zen eta kalitate bereko lanak espero ziren. Hala izan ziren. *Bordaxuri* heldu zen eta oraindik gaurkotasan handia baitu erregularki antolatua den antzerkia dugu.

Testuaren kalitatea bilatzen zen, jokoaren kalitatea ere. Pixkanaka, lehiaketen bitartez, taldeen kalitatea eta jokalarien kalitatea ere handituz joan zen eta hirurogeigarren hamarkadaren bukaeran Ipar Euskal Herriko jokalaria hobereak bildu ziren *Matalas* antolatzeko.

Hau zen helburuetatik bat, antzerkian kalitatea hobetzea, orduko prentsa irakurritz, helburua lortu zela agertzen da.

Kalitatea antzezleen artean garrantzitsua zen, autoreak hedatu nahi zuen mezuarentzat. Honelako definizioa aurkitzen dugu Patrice Pavisen hiztegian:

L'acteur en jouant un rôle ou en incarnant un personnage, se situe au cœur même de l'évènement théâtral. Il est le lien vivant entre le texte et l'auteur, les directives de jeu du metteur en scène et le regard et l'écoute du spectateur⁷.

6. P. LARZABAL. 1950.06.01. *Herría*. « A propos du Charivari de Hasparren ».

7. P. PAVIS. *Dictionnaire du théâtre*. Messidor. Editions sociales, 1987; 27. or.

Antzerki gehiago eta antzezlari gehiago, taularatzailleak sortu ziren, parrokiatako geletan ematen ziren antzerkiak, sotoetan ere. Oso giro herrikoian pasatzen zen. Hirira heltzeko garaia heldu zen. Hau zen gauzatu zen helburua. Baionako antzokian eman zen *Matalas*, eta gela mukurru bete. Euskal antzerkiak publiko handia zuela frogatu zen.

Antzerkien kalitatea hobetzea zen helburuetan, baina antzerki mota batzuen berritzeko erronka ere hartu zuen. Izan ere, *Orreaga (1964)* obrarekin pastorala hunkitzera doa Larzabal. Pastorala Xiberoatik atera zuen eta Azkainen antzerki taldea bildu eta Donibane Lohitzunen, Dukontenia parkean, eman zuten *Orreaga*. Harrera ez zen oso beroa izan. Pastorala berritzeko nahia ez zen ongi ulertu.

Patronageko antzerkitik, apezten eskuetan zegoen antzerki gehienetan irrigarri zena, batzuetan frantses antzerkien itzulpenak eskaintzen zituena, antzertira (ederti gisa) heltzea izanen du helburutzat.

Hegoaldean Altzagak egin zuen moduan, euskal antzerkia goratzen eta zorrozten aritu zen. Talde lana izan zen, euskal nortasunaren eredu batzuen inguruko gaiak landuz, etxea, familia, fedea. Euskal Herriko historia ere berrikusi zuen antzerkien bitartez, oinarrizko elementu batzuk hartuz eta arramoldatuz egokia zitzaion mezua hedatzeko gisan. Oroimen kolektiboko pertsonaien bizitza erakusten du antzerkitan, oroimen kolektiboaren indartzeko, herriko kulturaren goraiatzeko, eredu batzuk aipatzeko, irakurketa kritiko bat eginez, humanismoz betea.

Helburu horiek bizirik jarraitzen dute gaurko antzerkigintzan ere.

3. ESPAZIO EUSKALDUNETIK ALDARRIKAPEN IDENTITARIOA

Antzerkiaren bitartez, kontzientzia kolektiboa landu zen, eremu ofizialetan erabiltzen ez den hizkuntza nagusitzen zen, publikoarentzat mundu ezaguna erakutsia zen, antzezleen ahotan entzuten zena hurbiltasun handiz hartzen zen. Komunikazio erreza zen, bat bateko harremana, mundu baten aipamena era kolektiboan egiten zen.

3.1. Euskaraz bizi zen espazioa

Euskal espazioa aipatzen da, espazio mugatua baita, toki berezi batean eta espazio horren publiko berezia deitzen du, euskalduna. Nahiz eta euskaldunak ez direnek ere ulertzeko aukera handia izan, antzerkia ez baita soilik hitza. Bestalde, erakusten diren lanak tokiko problematikak jorratzen ditu, horrek ere hurbiltasuna sortzen duelarik. Kolektibitatearen bi ezaugarri nagusiak aurkitzen dira.

Bestalde sorkuntza hau, euskaraz egiten den sorkuntza, baldintza berezietan egiten da. Ez du instituzioetatik inongo laguntza jasotzen, ez dirutan, ez ezagutza mailan, ez promozio mailan. Baztertua den sorkuntza da.

Hizkuntza gutxituan egin sorkuntza zen, nagusia zen sorkuntzaren ondoan eraikitzen zena, beste sorkuntza batzuentzat Deleuze eta Guattarik deskribatuko zituzten sorkuntzak. Bazterbideetan ibilki zen kultura, hertsipenaren literatura eginez, kultur bide nagusietan erakusten ez zena⁸.

Autoreak berak, aztertzeo euskal antzerkia jatorri gutxi ditu. Alta, bada-kigu Larzabal ibili zela euskal antzerkiaren jatorria aztertzen, lantzen, obrak irakurtzen. Antzerkigintza ez zen sortze soila, lanketa zen, askotan erraten bada ere berehalako idatziak zirela, banatzen zituen. Guk ere aurkitu ditugu lanak afixa baten gainean idatziak eta horrela gordeak eta segur aski hedatzeko zirenak. Ez du horrek kentzen Larzabalen antzerkiak ez zutela oinarri landu sendorik. Dena den sorkuntza honek, euskarazko sorkuntza, gerla bukatu eta baldintza zailetan zegoen, idazle franko hil ziren gerlaren ondorioz eta beste asko erbestera joanak ziren. Kezka handiak zeuden euskal munduan, ez bakarrik Hegoaldean, Larzabalek Uztaritzen errefuxiatu ziren apezak ezagutu zituen.

Bestalde, inguruko kulturek, frantsesez egiten ziren sorkuntzek, haurrek eskolan ikasten zuten hizkuntza berriak gero eta pisu handigoa zuten euskal eremuan. Horrek guztiak zailtzen zuen euskarazko sorkuntza. Horrela esplika daiteke beste autore asko ez agertzea urte horietan.

Horrez gain, hogeigarren mendearen hastapeneko “aberri handia eta aberri txikia” kontzeptuak indar handia zeukan alegia, aberri handia Frantzia eta aberri txikia Euskal Herria gisa ikusten zen Frantziarekiko harremana, ez zen Euskal Herriaren desagertzea, edo biziraupenaren problematika ikusten ez eta ozenki salatzen, euskararen aldeko mugimenduak bazeuden ere.

Pixkanaka, euskal munduko pertsonaiak agertuz, tokiko problematikak landuz euskal espazioa indartuz joan zen. Egoera indartuz joan zen eta euskaltasunaren desagertzearen kezka eremu politikora heldu zen Enbata mugimenduaren sortzearekin.

Larzabal Enbatako sortzaileetan zegoen. Horrekin ohartzten gara urrats politiko azkarraren egitera eramana izan zela hamarkada horretan. Kanpamentuetan egondako apeza, frantses erresistentzian ibilitako euskalduna, gerlaren bukaeran bere burua abertzale gisa azaltzen ez zuen idazlea abertzale bihurtzen joan zen eta politikan sartzera heldu zen. Idazle gisa eramaten zuen lana ez zitzaion aski bere inguruan gertatzen ari zenaren gelditzeko.

Ez zuen antzerkigintza utzi. Espazio horrek eskaintzen zion tribuna erabiltzen jarraitu zuen. Obrak bideratu zituen, zituen sentimendu berrien agertzeko. Euskal nortasuna erakusten, galdezkatzen ibili zen antzerkietan, euskal espazioari indarra emanez, euskal munduari publikotasuna, ofizialtasuna erran genezake gaur. Euskal nortasunaren plazaratetik euskal identitatea aldarrikatzera abiatu zen.

8. PARE, François. *Les littératures de l'exigüité*. Québec: Le Nordir, 1992; 225 or.

3.2. Euskal espaziotik aldarrikapen identitariora

Publikoarekin harreman azkarra sortu zen. Publikoa oso leiala zen. Urtero antzerki berrien ikustera heldu zen. Gelak betetzen ziren, ikusgarriak errepikatzen ziren, herriz herri ematen ziren, antzerki talde desberdinek taularatzen zituzten. Larzabalen antzerkien berri bazuten Ipar Euskal Herriko herri gehienetan, kanpora ere eramaten zituzten, Bordelera, Parisera. Antzezleak ere ez ziren falta. Lehiaketak antolatzen ziren⁹. Horrela, antzerki horiekiko harreman estua zegoen.

Sekulan euskaraz idatzi edo irakurri ez zutenek alfabetizatzeke aukera paregabea izan zuten. Horren oroitzapen bizia dago oraindik herri horietan.

Bestalde antzerkien ondoren argazkiak atxiki eta banatzen ziren taldeetako kideen artean. Asko gelditzen dira etxeetan.

Publikoarekin ideia trukatzea zen. Prentsak ere parte hartzen zuen mugimenduan, ikusgarrien berri ematen zuen. Pixkanaka, antzerkiei buruzko iritziak ematen hasi ziren. Prentsaren bitartez iritziak trukatzen ziren ere, bereziki *Herria* astekariaren bitartez, baina *Gazte* aldizkariak ere horretan parte hartu zuen.

Euskal espazioa publikoaren hezitzeke, beste hizkuntzetake autore asko aritu ziren bezala, eta sorkuntzaren biziartzetake baliatu zuen Larzabalek. Horrela, eskola modua zen, kultur munduko jende frankok parte hartu zuten antzerkietan eta bultzada berria eskaini.

Baldintza horiek egokiak ziren euskaldunen memoriari dei egiteke. Memoria, historia elkartu zituen Larzabalek eta oholatza gainera euskaltasuna eta abertzaletasunaren goraiatzetake idatzi zituen.

Etxahun (1951) bertsolari ezaguna, garai horretan Euskaltzaleen Biltzarrak omendu zuena. Antzerkia baliatu zuen adulterioaren lantzetake. Gai modernoa, oihartzun handia izan zuen. *Etxahun* euskaldunen memorioan zegoen, gertakari latzaren aipamena da, *Etxahunek* bere lagun mina hiltzen du, bere emaztearen maitalearen hiltzera atera delarik, jeloskor. Duintasun handiarekin marrazten da poeta, bere baitan dauden kontraesanak azalduz, inguruak duen jokatzetake era erakutsiz, *Etxahunen* zoritxarra taularatzu.

Berterretx: euskal literaturako testu zaharrenetarik, euskaldunen historiari erreferentzia egiten dio eta hemen ere oholatza gainera ekarriz tragediari euskaltasunaren goraiatzea lotzen dio.

Matalasekin, urrunago joan zen Larzabal. *Matalas* izan zen, maila askotan, besteak beste antzerki honen inguruan jarriak izan ziren baliabideak, nolabaiteke Larzabalen obraren tontorra. Ipar Euskal Herriko antzezleri

9. *Herria*. 1951.01.04. « Grand concours de Théâtre populaire en langue basque ».

hoberenak elkartu ziren antzerki honentzat. Taularatzailleak T. de Monzon eta R. Idiart izan ziren, Baionako antzokian emateko. Hirian kalitatezko euskal antzerkia, antzezpena, erakutsi nahi izan zen. Arrakasta itzela izan zen eta horren oihartzuna ere. Historiaren berrikuspena Xiberoko pertsonaia famatu baten goraiatzeko. Xiberoko lurren defenditzeko bere bizia eman zuen apez baten goraipamena. Historiako drama bat, duintasunaren alde, ihardokitzaile baten apologia, herriaren defendatzaile, bandera eramaile. Larzabalek egoera konkretu bati egiten dio erreferentzia, pertsonaia bakoitzen ahotik agertzen dira egoera horren indar harremana. Antzerki engaiatu baten aurrean gaude.

Anti-tragedia idatzi zuen, Matalas hil zuten baina bizirik jarraitu du betirako, bere herriarengatik hil baitzen (Matalas-Jesus), oroimenean gelditu da.

Horrela euskal munduaren erakusleioa izatetik aldarrikapena izatera joan da Larzabalen antzerkigintza. Erakusleio honek gai bati buruz gizartean egon zitezkeen, eta zeuden aurpegi, iritzi, ikuspuntu desberdinak, aurrerakoiak batzuetan plazaratzen zituen. Baina, horretatik urrunago joateko helburua hartu zuen. Euskaltasunaren aldarrikapena, euskal historia-rena, memoriarena gero eta toki zabalagoa hartzen joan ziren idatzitako lanetan. Euskal identitate berri baten aldarrikapena ikusten zaio, erran daiteke Enbata mugimenduaren sortzetik landa. Erakusle izatetik aldarrikatzaile izatera pasa dela aitzina daiteke. Bi elementu horiek, deskribaketak, aldarrikapena, dira antzerki identitarioaren ezaugarri nagusiak, osagarri direlarik.

3.3. *Etxahun* eta *Matalas*, bi antzerki nagusi

Obra guztian, gaien hautatzeko unean, oso autore anitza da Larzabal. Problematika sozialak landu zituen baina bestelakoak, historikoak, familiari lotuak, haatik pertsonaia konkretuak landuz, pertsonaren ardura, pertsonak bizitzan egin behar dituen hautuen aurrean nolako jokabidea hobestu behar den erakustera ematen zuen. Pertsonaia konkretuak landu zituelarik antzerkiek oihartzun handiagoa izan zuten oraino, pertsonaiak zer nolako jokaera izan zukeen egoera baten aurrean, aukerak erakusten zituen, batzuk hobesten, baina beste batzuk ere erakusten.

Larzabalek neurri desberdineko pertsonaiak hautatu zituen, lehena, *Etxahun*, herritarra, koblakari ezaguna, hau izan zen hastapeneko antzerki nagusi eta arrakastatsua, Larzabalen fama berehala hedatu zuena. Euskal kultur munduarekin harmonian kokatuz idatzi zuena. Hazparneko antzerki taldeari eskaini zion obra, herrian oihartzun handia izan zuen.

Matalas baldintza desberdinetan eta helburu desberdinekin sortu zen. Ipar Euskal Herriko herri desberdinetako aktoreekin eraiki zen, historian inportantea izan zen apez baten inguruan, Matalas, eta Baionako antzoki nagusian, kalitatezko obren egiteko gaitasuna zegoela eta horretarako publikoa ere bazegoela.

Etxahun, (1951) lehen arrakasta izan zen. Antzerki hau 1951an idatzi zuen Larzabalek, Hazparnen bikarioa zelarik, Sokoara joan baino pixka bat lehenago. Hazparneko taldearentzat idatzi zuen. Hau ibiliko zen Ipar Euskal Herrian gaindi ikusgarriak emanez. Sei gertaldietako antzerkia da eta didaskaliak baditu eta lehena ohargarria da. Larzabal publikoaren informatzeko beharraz ohartua zen eta hau da lehenik erraten duena:

Jenderi eman xehetasun zenbait Etxahunez eta haren koplez¹⁰.

Bestalde, jendea abisatu behar dela dio haurrentzako antzerkia ez dela. Beste eremu batera pasatzea erabakia du, beste eskaintza bat egiten du, euskal kulturaren pertsona baten biziaren kontatzea erabakiz. Etxahunen fama eta zoritxarra landu, hedatu nahi du. Egoera korapilatsuan erakusi nahi du poeta, bertsolariei ematen zitzaien fama txarretik at joan.

Lehen gertaldia pentze batean pasatzen da, saihets bide batekin, Etxahun bakarrik da eta bere zoritxarra kontatzera dator. Bakarkako mintzaldi oso luzea egiten du, Larzabalen antzerkietan izanen den luzeena. Predikuen eragina sumatzen da. Baina, akats horiek zuzentzen joan zen eta elkarriketak gero eta zorrotzagoak ziren, pertsonaia bakoitzari ezaugarri bereziak eskainiz, antzezleri bakoitzari bere artearen erakusteko aukera emateko.

Matalas beste helburuekin eraiki zen. *Matalas* obrak zeraman urtetan lantzen eta zorrotzen aritu zen proiektua, euskal kontzientzia kolektiboa indartzea kulturaren bitartez, antzerkietako pertsonaien bitartez. Horrela urtetan landua izan zen publikoak *Matalas* ezagutu zuen, *Matalasek* ziona ulertu zuen eta txalotu zuen. Askotan antzerki historikoek ez zuten historialarien azterketa pasatzen, askotan uneko gertakariekin nahasiak izaten baitziren. Adibidez, aitzineko urteetan Hegoaldetik etorritako errefuxiatuek problematika zaharrak azaleratzen zituzten. Larzabal berak Anai Artea elkartea sortu zuen, euskaldunek bizi zituzten gora-beherak oholtza gaineratzen zituen, besteak beste euskal errefuxiatuei babesa emateko. Gose grebak egiten zirelarik Baionako katedralean, horretaz hitz egiten zen Larzabalek antzerkietan.

Bide luzea euskal lurra defenditu zuen apeza oholtzaren gainera ekartzeko, euskal historia markatu zuen pertsonaia, kantuz gogoratzen zena. *Matalasen* bitartez euskal identitatearen gorai patzen zen, *Matalas* apeza izanki, identifikazio handia zen autorearekiko.

Bi antzerki horien artean 17 urte iragan dira. Urtez urte publikoa emendatuz joan da, ez da antzerki horiez aspertu, ase.

10. P. LARZABAL. *Idazlanak*. Lizarra: Elkar, 1991, 221; or.

4. ONDORIOA

Gaur egun, Larzabalen antzerkiak ematen dira, ulertzen eta preziatzen dira, errepikatzen dira, euskaltasunaren sentimendua azkarki aldarrikatzen dituzten antzerkiak direlarik. *Ibañeta* antzerkiak euskaltasuna goraiatzeko zuten, 1969an emana izan zen eta horretaz hitz egiten zuten Inaki Beobidek *Argia* astekarian. Berrogei urte berantago antzerki bera emana izan da Larzabalen. Bi mila pertsona baino gehiagok ikusi du antzerkia. Larzabalen antzerkiak klasikoak bihurtu dira publikoari hitz egiten baitiote, publikoak ulertzen baititu, benetako emozioak sortzen baitituzte. Benetako arrakasta, omena da autoreari.



Ibañeta antzerkiaren duela hogeita hamar urte plazaratutako kritika.

Kalitatezko antzerkiaren alde lan egin den urte horietan, antzerki amateurren eta antzerki profesionalen arteko debateak jorratu ziren eta debate horrek gaur egun ere jarraipena badu. Antzerki amateurren sekulako maila erakutsi du, eta sekulako tokia izan du euskaltasunaren aldeko indarren sozializatzeke.

Euskal identitateaz hitz egiten duen antzerkia, literatura, bizi da, geroak baduke euskal identitatearen aldarrikapena idazlearen artean, sortzaileen artean, euskaldunen artean beharrezkotzat sentitzen bada. Unibertsaltasuna aldarrikatzen da kalitatezko literatura aipatzen delarik. Antzerki identitarioa kalitatezko literatura egiten saiatu da, antzerki honek harrera ona izan du eta oraindik badu.

BIBLIOGRAFIA

Frantsesez (Obra orokorrak eta teorikoak)

PARE, François. *Les littératures de l'exigüité*. Québec: Editions Le Nordir, 2001; 230 or.

———. *Théories de la fragilité*. Cap-Saint-Ignace: Editions Le Nordir, 1994; 153 or.

PAVIS, Patrice. *Dictionnaire du Théâtre*. Paris: Editions sociales, 1987; 441 or.

———. *Vers une théorie de la pratique théâtrale*. Arras: Editions Presses Universitaires, 2000; 475 or.

PIERRON, A. *Le Théâtre, ses métiers, son langage*. Paris: Editions Hachette Classiques, 1994; 112 or.

PRUNER, M. *L'analyse du texte de théâtre*. Paris: Editions Nathan Universités, 2001; 128 or.

Euskaraz edo-ta euskal kulturari lotutakoak (Obra hautatuak)

ETCHECOPAR ETCHART, H. « Ambivalence du théâtre populaire basque ». In: *Europar Herri antzerkia = Teatro popular europeo = Théâtre populaire européen*. Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura, 16. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999; 63-85.

HARITSCHELHAR, J. *Le poète souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862)*. Bayonne: Editions Société des Amis du Musée Basque, 1969.

HEINIGER, P. « La pastorale dans le jeu des langues ». In: *Europar Herri antzerkia = Teatro popular europeo = Théâtre populaire européen*. Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura, 16. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999; 51-61.

ITZAINA, X. «Sinestun metodikoak. Eliz mugimenduak eta gizartea 50ko hamarkadan». *Jakin*, 159, 2007; 63-80 or.

KORTAZAR, J. *Diglosia eta euskal literatura*. Donostia: Utriusque Vasconiae Éditions, 2002.

LABAYEN, A.M. *Teatro Euskaro*. Donostia: Auñamendi, Tome 1, 1965.

———. *Teatro Euskaro*. Donostia: Auñamendi, Tome 2, 1965.

———. «Aspaldiko teatro-Zale bat oraingo Teatroaren Aurrean». *Egan*, 1966.

———. *Teatrogintza eta Yakintza*. Zarautz: Itxaropena, 1973.

———. *Teatro osoa euzkeraz*. Tome II. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1977.

———. *Teatro osoa euzkeraz*. Tome III. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1977.

LANDART, D. *Iparraldeko kultur egoera azken mende laurden honetan*. Bilbo: Bilboko Udala, 1994.

MOZOS, I. «Inauterietako Herri Teatroaz». In: *Europar Herri antzerkia = Teatro popular europeo = Théâtre populaire européen*. Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura, 16. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999; 189-198.

OLAZIREGI, M. J.; ARKOTXA, A. *Euskal kritika, gaur*. Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura, 19. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002.

- URKIZU, P. *Euskal Antzertia*. Donostia: Antzerti, 1984.
- . *Euskal teatroaren historia*. Bilbo: Kriselu, 1975.
- . *Introducción a la filología vasca*. Madrid: Cuadernos de la UNED, 1991.
- . *Literatura eta kritika*. Donostia: Lur, 1970.
- . *Euskal iztundearen 75 urteurrena (1915-1990)*. Donostia: Antzerti, 1990.
- . "Antonio Maria Labaien eta Euskal Antzertia". *Hegats*, 4. Donostia, 1991; 91-99.
- . *Jundane Jakobe Handiaren Trageria*. Errenderia: Patri Urkizuren Edizioa, 1996.
- . *Zuberoako irri-teatroa*. Saint-Etienne-de-Baigorry: Izpegi, 1998.